


Aisialdian
ipuinen bidez
sexismoari
aurre egiteko
aholku
sorta



emaiSia

etkatea

SARRERA	7
1. IPUINEN FUNTZIOAK UMEEN GARAPENEAN	8
Psikologikoa	Intelektuala
Afektiboa	Soziala
Hizkuntza	Pertzepitiboa
Estetikoa	Morala
2. IPUINAK ETA ADINAK	12
Adierazpen mota	
Egoera bat	
Irtenbide bat	
3. BAINA, IPUINAK SEXISTAK OTE DIRA?, ZERGATIK?	14
Zergatik dira sexistak	
Ipuinetako irudiak	
4. IPUIN EZ SEXISTAK DIRA... ..	22
5. ZER EGIN IPUINAK EZ SEXISTAK IZATEKO?	24
Proposamenak	
Zer ez egin	
6. ZELAN ERABILI IPUINAK AISIALDIRAKO BALIABIDEAK BEZALA	28
Irakurri	Antzestu
Marraztu	Txotxongiloak
Ipuinak sortu	Pelikulak ikusi
Ipuinak kontatu	Bestelako metodologiak

Irudiak: Katixa Arteaga



Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta



Sarrera

Ipuinek, heziketarako baliabide ezin hobea eskaintzen digute. Ipuinen bidez, umeen mundu sinbolikoa osatzen joaten da eta beraien irudimena eta errealitatearen hurbilketa lantzen dute.

Astialdiko begiraleek umekin daukaten esku-hartze sozio-kulturalean, jolas eta jostailuek paper garrantzitsua betetzen dute, zentzu honetan ipuinak ere jolas bihurtzen dira. Hau dela eta, ipuinen bidez hezikidetzat lantzeko irizpideak proposatu nahi izan ditugu, begirale zein hezitzaileentzat lagungarri izango delakoan. Astialdian, eta orokorrean umekin lan egiten duten eragile orrentzako erantzun praktikoak emateko beharrak, ipuinen arlo sexistaren inguruan lan egitera eraman gaitu.

Umeen literaturaren bidez, jendarteak bere burua nola ikusten duen jakin ahal dugu, nagusiek umeentzako zer nolako mundua nahi duten islatzen baita. Zentzu honetan gaur egungo ipuinetan umeei zuzenean egokitzen zaizkien arazoak agertzen badira ere (gurasoen banaketak, adopzioak, sexu bereko gurasoak...) oraindik, idazten diren ipuin askotan estereotipo eta rol tradizionalak agertzen dira behin eta berrir o. Erre-pikatzen diren eredu sexista horietan erreparatu ezean, umeei mundua ulertzeko bidezkoa ez den modu bat bidaliko diegu, umeei jolastan kopiatzen dituzten paperak, ematen dituzten erantzunak edo mundua ulertzeko sortzen dituzten azalpen asko ipuinetatik hartzen baitituzte.

Hau guztia dela eta, ipunek euskarri hezitzaile bezala duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ipuinak ez dira neutroak inondik inora, mezuetan, pertsonaietan edota irudi bakoitzaren barruan, munduaren interpretazioa zabaltzen ari da. Jendarte bidezkoago nahi badugu, gure txikitxoek irakurtzen dutena aztertzea premiazkoa da. •



1 |

Ipuinen funtzioak umeen garapenean

| Psikologikoa

| Intelektuala

| Afektiboa

| Soziala

| Hizkuntza

| Pertzeptiboa

| Estetikoa

| Morala

Psikologikoa

- Sormena, irudimena eta fantasia estimulatzen ditu.
- Nahi psikologikoak betetzen ditu.
- Barne mundua, bere intimitatea aberasten du.
- Sentikortasuna suspertzen du.
- Kritika ahalmena lantzen du.
- Bere gatazka pertsonalak konpontzen laguntzen du.
- Beldurrak, kezak... gaintzen ahalbidetzen du.
- Bere autoestimazioa lantzen du.
- Ohiturak sortzen ditu.
- Hazten eta heltzen laguntzen du.

Intelektuala

- Mundua, errealitatea ezagutzen laguntzen dio.
- Informazioak, ikasketak jasotzeko baliabide egokia.
- Jakinmina suspertzen du.
- Hausnarketa eragiten du.
- Bere "zergatiei" erantzuten du.
- Jarduera mentala egituratu eta aberasten du.
- Arreta, kontzentrazioa, oroimena...estimulatzen ditu.

Afektiboa

- Bere guraso eta hezitzaileekiko harreman afektiboak eta komunikazioa suspertzen eta hobetzen ditu.
- Emoziozko heziketa eratzen laguntzen du.

Soziala

- Giza harremanak ulertzen laguntzen dio.
- Rolak eta portaera ereduak irakasten ditu.

Hizkuntza

- Bere komunikatzeko gogoia betetzen du.
- Hiztegia aberasten du eta hizkuntza ulermena eta adierazpena garatzen ditu.
- Euskararekiko jarrera positiboa eraikitzen du.

Pertzeptiboa


- Sentimen-pertzepzioa orokorki (ikusmena, entzumena, ukimena, etab.) estimulatzen du.

Estetikoa

- Ahalmen estetiko eta artistikoa estimulatzen ditu.

Morala

- Besteekiko tolerantzia, ulermena eta errespetua erazten ditu.



2 | Ipuinak eta adinak

| Aurreneko bi urteetan

| 2 eta 4 urte bitartean

| 4 eta 6 urte bitartean

| 7 eta 10 urte bitartean

| 10 eta 12 urte bitartean

- **Aurreneko bi urteetan** deskubritu, aginka egiteko eta ukitzeko elementu bat gehiago izango da liburua. Lehendabiziko hitzak ahozkatzen dituzte. Helduaren laguntza behar du eta liburua joko gisa ikusiko dute. Gauzak ezagutzeko baliagarria da, gauzen arteko desberdintasunen pertzepzioa: neurriak, koloreak... Lehendabiziko esaldiak egiten dituzte.

- **2 eta 4 urte bitartean:** gauzak jolasen bidez ikasteko elementuak izango dira. Irudi biziak dituztenak eta mundua beste modu batean irakasten dutenak: hotza eta ber oa, animaliak, goian eta behean. Hitz berri asko ikasten dute eta esaldia menperatzen dute. Liburu bat beraiek bakarrik "irakur" dezakete eta irudikatu dezakete.

- **4 eta 6 urte bitartean:** bere izaera garatzen hasten da umea, irudimena, logika, baloreak eta autonomia ohiturak. Inguruaren gertakizunei erreparatzen die, azaltzeko beharra dauka. Portaera moralaren hasiera ematen da: ondo eta txarto dagoena. Aurre-irakurketa eta aurre-idazmena hasten da. Pixkanaka garrantzi gehiago ematen dio liburuaren edukari. Irakurtzeko eta idazteko interes handia azaltzen du.

- **7 eta 10 urte bitartean:** zergatien adina da. Bai hurbileko bai inguruko gauzekiko curiositatea areagotzen da. Beraiek istorioak kontatzeko gai dira. Idazten eta irakurtzeko gaitasuna sendotzen joango da. Miresten dituzten inguruko nagusiek egiten dituzten gauzekiko interesa adieraziko dute. Sentimenduak adierazteko eta kontr olatzeko gaitasuna dute. Taldean lan egiteko, laguntzeko eta arazoak elkarrekin konpontzeko gai dira.

- **10 eta 12 bitartean:** kontakizunaren deskribapen zehatza interesatzen zaie. Istorio interesgarriak eta bere arreta erakartzen dutenak gustoko dituzte, misterio eta abenturazko eleberririk. Egia eta fikzioaren artean desberdindu nahi dute, jakin nahi dute ea benetako istorioak diren ala ez.

3.

Baina, ipuinak sexistak ote dira? Zergatik?

I Zergatik dira sexistak

I Ipuinetako irudiak

Ipuinek, neska-mutilei paper sexualen transmisiorako funtzioa ere arrakasta handiz betetzen dute. Sexu bakoitzar entzat rol, gaitasun eta portaera batzuk markatuko dituzte. Ipuinetan, mutilak aktiboak, azkarrak, trebeak eta dinamikoak izango dira, neskek berriz, pasiboak, garbiak, ederrak, atseginak eta lasaiak. Ipuinetan agertzen diren emakume eta gizonen irudi estereotipatuak neskentzako eta mutilentzako ereduak markatzen dituzte, simetria adierazteko sexu bati markatzen zaizkien ezaugarriak besteari kentzen zaizkio.

Gaur egungo ipuinetan esfortzu nabariak egiten ari badira ere, oraindik asko falta da benetako berdintasunera heltzeko. Eredu modernoagoak betiko pertsonai eta istorioekin nahasten dira: printze eta printzesak, sorgin eta amandren gaiztoak, mutil trebeak. Nesken protagonismo handiagoa, askotan betiko estereotipoetan erortzeko erabiltzen da.

Narrazio tradizionalak, gizartearen memoriaren zati bat dira eta subkontziente kolektiboan errotuta daude. Gure mundu sinbolikoan ere eragina handia daukate. Umeen artean arrakasta handia lortzen dute askotan entzun dituztelako eta ezagunak direlako, hau da, guztiek dakite nor den txanogorritxu. Honetaz gain, bizitzarako tresnak eta ereduak eskaintzen dituzte, besteak beste zorientsuak izateko bidea. Hala ere, bide honetan neskek eta mutilek gauza desberdinak bilatu behar dituzte.

Zergatik dira sexistak

Ipuinen bidez umeez mezu desberdinak jasotzen dituzte eta barne adimen egituretan munduan eta beraien inguruan gertatzen diren gauzen irakurketa egiten joaten dira. Mundua interpretatzeko ideiak helarazten zaizkie. Ipuinetan pertsonaia desberdinak agertzen dira eta oraindik ere neskatok paper batzuk eta mutikok beste batzuk dituzte, horrela gizonen eta emakumeen abilezia eta portaeren artean dauden ezberdintasunen zati bat azalduko zaie. Jolas eta jostailuekin batera ipuinak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunen azalarazteko eta finkatzeko aitzindariak direla esan dezakegu.


Gurasoek, hezitzaileek ipuina eskaintzerakoan, umetxoa neska edo mutila den kontuan hartuta egiten dutenean hasten dira ezberdintasunak erakitzen. Neskato bati printzen istorioak irakurtzen badizkiogu, pertsonaia horrekin identifikatzea eta horrelakoa nahi izatea bultzatuko dugu, ederra, atsegina, esanekoa, zintzoa, garbia eta printzea bere salbatzailea izatea. Alderantziz, abenturazko istorioak irakurtzen badizkiogu mutilari irudimena eta espazio zabalekin amets egin dezala bultzatzen ari gara. Haurren lehenengo esperientzia hauek neskatoek eta mutikoek gauzen eta gizakien munduarekin duten harreman motetan hasierako ezberdintasunak, eratuko dituzte. Ezberdintasunak areagotu egiten dira, neskak eta mutikoak hazten doazen neurrian, tradizioz bere generoari lotutako ipuinen aldeko aukera handitu egiten delako ere.

Ipuin klasikoak aztertuz gero, sexuen artean ematen den lan eta bizimodu bereizketa argia da. Txanogorritxuk ez zuen bere amaren agindu jarraitu eta ondorioz ehiztariak bera eta amona lagundu beharko ditu. Edur nezurik zazpi ipotxen etxea garbitzen du poz-pozik hauek basoan lan egiten duten bitartean, Printzeak eta zaldunak neska gaixoaren arazoak konpontzeko agertuko dira eta gainera beraiekin ezkontzea lortzen dutenean, pozarren biziko dira. Jendarte tradizionalaren irudiak dira, bikote heterosexualen harremanak, sexuen arteko rolen banaketa, familiaren batasuna, monarkiaren betiketzea... Ipuin hauetan emakumea gaur egungo errealitatean baino paper okerragoan azaltzen da.

GAUR EGUNGO HAURREN LITERATURAN ANDROZENTRISMOA ORAINDIK NABARIA DA

- Protagonista mutila da ipuin gehienetan. Nesken protagonismoa askoz txikiagoa da.
- Mutil gehienak ikasleak diren bitartean, sexu femininoak etxeoandreak dira nagusi. Pertsonaia maskulinoek irakurlearen adina dauka eta femininoak, irakurlearen amarena. Aitarek papera berriz, ez da %10 era heltzen.

- Izaerari eta ipuinetako tramari dagokionez mutilak dira nondik norakoak erabakitzen dituztenak, ideia bikainak dituzte. Erabakiak hartzearen ahalmena nagusiki mutilena da, neskak isilik eta kikilduta egoten dira egoera berdinen aurrean.
- Ilustrazioetan mutilak askoz gehiago ateratzen dira.
- Mutilek eta gizonek paper eta funtzio gehiago betetzen dituzte, lanbide anitzago dituzte. Emakumeak berriz lanbide gutxi batzuk betetzen dituzte: etxeoandre, andereñoa, erizaina, dendaria.
- Ondorioz pertsonaia gehienak mutilak dira eta hauen artean ikasle jarduerak duten pertsonaia dira protagonista nagusiak. Nesken artean, berriz, zehaztu gabeko jarduerak agertzen dira. Protagonismoa nagusirik gabeko pertsonaia asko amak dira, pertsonaia femininoen ia laurdenera, aitarek rola ez da ia agertzen eta ia inoiz etxeo lanak burutzen.



Ipuinetako irudiak

Testuak garrantzia badu, zer esanik ez irudiek, batez er e umeak txikiak direnean eta oraindik irakurtzen ez dakitenean. Irudiak testuari laguntzeko sortuak dira, baina aldi ber ean errealitate autonomo bat islatzen dute. Izan ere, ipuina asmatu ahal da irudiei erreparatzen, edo testuan agertzen ez diren nabardurak finkatzen dira. Askotan narrazioan agertzen diren estereotipoei gehitzen zaizkie marrazkiak.

IPUINETAN AGERTZEN DIREN OBJETUAK ETA SINBOLOAK

• **Amantala, erosketak egiteko poltsa, erratza, trapuak, garbitzeko tresnak** emakumearekin lotuko dira. Oso noiz-behinka gizonak erabiliko dituzte baina ez ohiko bezala adierazten da. Etxeko esparruarekin lotuta dago, amaren funtzioekin.

• **Betaurrekoak:** adimena eta jakinduria adierazten dute. Klaseko lehengoa, "jakintsua". Nesken kasuan oso azkarrak direla adierazten dute, askotan edertasuna eta jakinduria bateraezinak direla islatzeko ere erabiltzen dira. Gizonengan ere jakituria adierazten dute, baina modu positiboagoan

• **Begiztak:** neskak identifikatzeko erabiltzen dira. Batez ere ume txikiei zuzendutako liburuetan. Neska eta mutilar en arteko desberdintasuna markatzeko neskari, emeari (animaliakin askotan egiten da) begizta bat jartzioan diote buruan.

• **Egunkariak:** gizonak irakurtzen dituzte lan egun gogorra pasa ondoren lasai egoteko uneetan. Kanpoko munduko informazioarekin, jakinduria eta jakin-minarekin, eta modernitatearekin lotuta daude, baita denbora propioarekin ere.

• **Aldizkariak, ipuinak:** Neskek edo emakumeek berriz ipuinak, aldizkariak, nobela arrosak etab. irakurtzen dituzte. Harreman pribatuen munduarekin eta sentimenduekin lotutako mundua ematen dute aditzera, errealitatean gertatzen diren gauzengatik interes falta izango balute bezala.

• **Zorroa, maletina:** lanbidea adierazteko erabiltzen da, gizonen ezaugarria eta batez ere aitarena, bulego lanarekin lotuta dago.

• **Leihoa, dorrea:** emakumeekin lotuta, pasibitatea adierazten du, etxe barruko, bameko espazioa, barruko eta kanpokoaren arteko muga, zain egotea, norbaiten zain, printzearen zain, aukeratua izatearen zain. Bizitzaren patua ez du kontrolatzen, ezin da ekimena hartu, beste norbaitek zuzenduko ditu bere urratsak, ikuslearen papera.

• **Orraziak, ispiluak, lore sortak, bihotzak...:** edertasunaren garrantzia balore bezala emakumeengan, harrakeria, koketeria... Emakumeak gauza hauengatik kezkatzen dira.

IPUINETAN AGERTZEN DIREN PERTSONAIAK

Emakumeen paperen artean rol desberdinak agertzen dira:

Orokorrean bigarren mailakoak dira, neska lagunak, emazteak, amak, arrebak, etxeakoandreak. Batzuetan lagungarri eta beste batzuetan oztopo bihurtzen dira. Pasiboak, etxe zereginei aurre egin behar diete, eta askotan gizon baten zain daude, txukunak, garbiak, zintzoak, lasaiak, ameslariak, menpekoak, gizona, printzea, ezkontza, beste aspiraziorik ez dutenak.

• **Neskak:** Gaztea da, ederra, zintzoa, esanekoa liburu askotan. Azkeneko urteetan neska bihurriak ere agertzen dira, beraien lehenetasunak markatzen dituztenak eta ekimena dutenak.

• **Amak:** lanbiderik eta lanik gabekoak, ez dakigu zer egiten duten, zaretasunik, kultur interesik, lagunik, kanpoko harremanik, jendartean dauden arazoengatik kezkarik ez dutenak dira. Etxean, beraien lan eta esfortzuengatik duten saria seme-alaben maitasuna da, beste helbururik ez dute.

• **Amamak:** aitzineko amamak agertzen dira oraindik. Gaur eguneko amamak gazteak dira, etxetik kanpo lan egiten

dute, lagunekin ateratzen dira eta oporretan joaten dira. Hala ere ipuinetan emakume zaharrak agertzen dira, ile ur dina dutenak eta etxean pastelak egiten gelditzen direnak.

• Emakume onak eta gaiztoak:

Onak: Printzesa, neska gaztea eta amak: ederra, lasaia, maitagarria, lirainak, garaiak, doktor ea, pinpirinak, onak, eskuzabalak, asmo handikoa... izan ohi dira.

Eregina, emakume heldua: ama, amatasunaren papera, zaintza.

Txarrak: Sorgina, amandrea, ahizpaordeak: gaiztoak dira. Lehengo ipuinetan beti itsusiak izaten ziren, gaur egun asko emakume ederra eta maltzuraren irudia dute. Inbidia diote ederragoa delako eta mutil-gizonaren maitasuna lortzen duelako. Ama eta amamaren (emakume onak) paper etik ateratzen direnak dira.

Mutilak-gizonak:

Nagusiak dira, printzeak, zaldunak, ezkutuko agenteak, esploradoreak, abenturazaleak, kazetariak, galilear menpe-
raezinak, super heroiak, bakeroak, indioak, gladiadoreak, soldaduak... Aktiboak, ausartak, ador etsuak, bortitzak. Munduan helburu bat bete behar dute, eta askotan sari gisa emakume bat dute. Etxetik kanpo daude eta etxea atsedena hartzeko lekua da, lasai egotea.

Ipuinetan pertsonaia maskulinoak gehienak dira eta nahiz eta protagonista neska bat izan (maitagarrien ipuinak) gizonaren papera funtsezkoa da istorioaren garapenean.

• **Mutil gazteak:** ausartak, abenturazaleak, argiak, ederrak izaten dira normalean. Behar beharrezkoak emakumearen zioritasunerako.

• **Aitak:** lanpetuta daude, etxetik kanpo agertzen dira edo abenturetan. Etxean berriz, eserita agertzen dira bai telebista

aurrean, egunkaria irakurtzen. Serioak dira, eraginkorrak, erabakiak hartzeko ahalmena dute. Batzuetan etxeko esparruan zerbait egiten agertzen direnean askotan beraien ezintasuna adierazteko izaten da, ama ez dagoela eta ar dura hartu behar dutenean, orduan ez dira gai ezer ondo egiteko eta gauzak apurtzen dituzte. Mezua: emakume batek bezala ezin du gizon batek egin.

Semeekin, alabekin ez bezala, gehiago jolasten dute gauza desberdinetara, kirola egiten dute beraiekin...



Bestelako pertsonaiak: animalien familiak

Normalean ume txikiengana zuzenduta daude.


Rolak eta paperak are tradizionalagoak dira: amak etxeoandrea izaten dira eta gizonak etxetik kanpo lan egiten dute, hau dela eta etxera nekatuta iristen direnez, jazarri egiten dira.

Askotan animaliak ez dira inolako sexuarekin identifikatzen era konkretu batean. Beste batzuetan generoa markatzeko elementuak gehitzen dira irudietan (amantalak, begitzak, egunkariak).

4

Ipuiñ ez sexistak dira...

- Sexuari lotutako genero rola errepikatzen ez dituztenak. (Ama beti etxeoandrea eta aita beti kanpoan lanean).
- Genero estereotipoei erantzuten ez dietenak. (Neska esanekoak eta zintzoak dira eta mutilak ausartak eta indartsuak).
- Generoari dagozkion bestelako balor eak bultzatzen dituztenak, hau da, balore positibo guztiak (generoa kontuan hartu gabe).
- Gure bizitzara eramateko eredu berri bat luzatzen dutenak.
- Gizarteko ekitatea bultzatzen dutenak. Pertsona guztientzako aukera berdintasuna bultzatuz, desberdintasunak eta berezitasunak errespetatuz, gizarte justuago bilakatzeko.
- Pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunean garatzeko laguntzen dutenak.
- Irudietan eredu berriak eta anitzak eskaintzen dutenak.



5 |

Zer egin ipuinak ez sexistak izateko?

Proposamenak:

| Zer egin

| Zer ez egin

- Esparru afektiboa eta profesionalaren arteko adiskidetzeari, hau da ausardia, ekimena, afektibitatea, sentimenduen adierazpena, etxeko lana eta kalekoa pertsonaia guztien ezaugarriak izatea.
- Emakumeak lanbide desberdinetan agertzea.
- Eredu gehienak oraindik maskulinoak dira. Irudiak eta testuak berritzu eta gaur egungo errealitatera egokitu beharko lirateke.
- Lan munduan arrakasta duten emakumeak islatu behar dira: langileak, trebeak, ausartak, politikan edo kiroletan arrakasta lortzen duten amak.
- Emakumeen edo neskatilen ametsa ez izatea printzea edo mutila topatzea, beste motatako helburuak agertzea.
- Gizonak etxeko lanak betetzen, umeen pardedak aldatzen, erosketetara joaten, autoa konpontzen ez dakitenak.
- Mutilentzako beste eredu batzuk ere zabaltzea, sentimenduak adierazten dituztenak, borroketan beldurtzen direnak, lehiak gustukoak ez dituztenak.
- Etxeko lanetan aritzen diren seme-alabak.
- Lagunekin ateratzen diren amak eta amamak.
- Beste familia ereduak ere badaude, aniztasuna, bikote homosexualak, ama seme-alabekin, aita seme-alabekin.
- Emakume eta gizonen balio positiboak neurri beretan bultzatu, pertsona eredu berria lortzeko.
- Gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta negoziazioa agertu eta ez borroka. Normalizatuta dago ipuinetan pertsonaia maskulinoa gudara, borrokara doala. Agresibitatearen errefortzua da.
- Umeentzako literaturak berdintasunerako bidea zabaltzeko eta bultzatu behar du.

Zer ez egin

- Eredu maskulinoan murgildu eta feminitatearen ezaugarriak baztertu, neska ausartak, borrokalariak, beldurrik gabekoak... baina inoiz ez sentimenduak adierazten dituztenak.
- Betiko eredu maskulino nagusia bezala mantendu eta femeninoa gutxietsi.
- Genero desberdintasunak gainditzen saiatu eta beste desberdintasunak mantendu.



6 |

Zelan erabili
ipuinak
astialdirako
baliabideak
bezala

Irakurri

Astaldian burutzen diren jarduerak klaseko dinamikarekin apurto behar dutelaren ideia oso zabaldua dago. Askok irakurketa eskolako lanarekin lotzen dute eta berientzat ez da interesgarria edo atsegina izan daitekeen zerbait. Hala ere, guk bultzatu nahi dugun astialdi hezitzailean ipuina baliabide ezin hobea izan daiteke. Baina, zelan txertatu ahal dugu irakurketa astaldian?

Hasteko, liburuak astialdirako baliabide bezala eskura jarri behar ditugu. Ipuina oinarria izan daiteke hainbat jar duera burutzeko, eta irakurketa hasiera izango da. Ohiturarik ez badute, umeen jarrera ezkorra izan daiteke, horr egatik begiraleen papera funtsezkoa da, ipuinetatik hainbat gauza ikas daitezkeela ikustarazteko, beraiekin jolasteko eta ondo pasatzeko. Lehenengo eta behin erakustea ipuina ez dela ikastetxean saltzen dugun bezalakoak bakarrik. Badaude baita ere komikiak, abentura anitzeko liburuak, klabeak deszifratzeko liburuak...

Gustoko duten ipuin bat irakurtzen duten bitartean umeak lasai eta konzentratuta egongo dira. Hala ere, ipuin horiek zer nolako baloreak zabaltzen dituzten kontararazteko eta beraiegan hausnarketa bultzatzeko nagusien laguntza behar dute.

Irakurtzeko txokoak antola daitezke beraien astialdian irakurtzeko. Ume bakoitzak aukeratutako liburu batez osatua, elkartrukatzeko, edota begiraleek aukeratutako eta ekarritako liburuekin.

Antzeztu

Antzezpeneren bidez gorputz adierazpena, desinhibitzea, komunikazioa, egoeren dramatizazioa eta sentimenduen adierazpena landuko ditugu. Antzezpenera pertsonaien paperan jartzeko eta enpatizatzen ikasteko bidea da, hau da, besteari gertatzen zaiona ulertzeko eta sentitzeko. Antzezpenera eta gero guztiok borobilean jarrita hausnarketa egitea komenigarria da.

Antzezenetan pertsonaiak eta rolak aldatu ahal dira. Adibidez femeninoak diren paperak mutilek antzeztea eta alderantziz, edota rolak aldatzea, printzesak printzea lagundu behar du. Ondo legoke ere umeei ipuinari buelta ematea eta nahi duten moduan antzeztea. Gertatutakoaren inguruan hausnarketa bultzatu.

Nola jokatu du bakoitzak bere sexuari ez dagokion rola burutu duenean?, zergatik?

Marraztu

Irudien garrantzia azpimarratu behar dugu, zer nolako irudiak erabiltzen ditugu?, zer gertatzen da kolorekin? Umeekin marrazketa askotan erabiltzen den metodologia da. Batzuetan marrazki librea eta besteetan irudiak ematen zaizkie beraiek koloreztatzeko. Marrazkietan fijatu behar gara, zer irudikatzen duten, neskak agertzen badira, nolakoak diren eta zer egiten duten, mutilekin gauza bera.

Koloreei dagokionez, kolore guztiak erabiltzea bultzatu behar dugu. Bakoitzak zergatik aukeratzen dituen kolore batzuk eta besteak ez, horren gainean pentsarazi. Arrosarekin gertatzen dena aztertzea ondo legoke eta guztiak kolore honen erabilera bultzatzea.

Txotxongiloak

Txotxongiloak astialdian magia sortzeko baliabideak dira. Antzezenarekin bezala adierazteko bide oso onak dira eta ipuina oinarria izango dute. Gainera panpinak beraiek egiten dituztenez inplikazioa handiagoa da.

Beraiekin tailerretan txotxongiloak egin daitezke, pertsonaia bakoitzaren ezaugarrietan arreta jarritz, nolakoak dira protagonistak?, zer nolako itxura dute?, zergatik?

Begiraleen papera:

- Ipuina zein izango den aukeratu.
- Txotxongiloak sortzeko teknika zein izango den proposatu. (kortozko pilotak, oihalak, margoak...)
- Pertsonaien ezaugarrien inguruan hitz egin.
- Gidoiak prestatu. Elkarriketak.

Ipuinak sortu

Ipuinak sortzera jolastu:

Hau jolas kooperatiboa da non partaide guztiak zerbait esan behar duten ipuina osatzen joateko. Zirkulan jarrita batek hasiera ematen dio ipunari, pilota bat eskuan duela beste bati botatzen dio eta honek jarraitu behar du istorioa. Partaide guztiak beraiek ekarpena egin behar dute istorioa osatu arte. Behin amaituta ipuinaren garapenaren inguruan hitz egin, gertatu dena aztertzeko.

Begiraleen papera:

- Pertsonaiak eman eta amaieran hausnarketa bultzatu.

Pelikulak ikusi

Askotan astialdian ipuinetan oinarritutako pelikulak erabiltzen dira. Umeei zuzendutako pelikulen produkzioa handia da, baina produkzio-eteak gutxi. Walt Disney da zalantzarik gabe hedapen handiena lortu duena eta beharrezkoa da pelikula horien bidez zabaltzen diren mezuen gainean hausnarketa egitea.

Walt Disneyk ekoizten dituen pelikula gehienek betiko ipuinak dituzte oinarri, baina Estatu Batuetako kultura eta baloreetara egokitu dituzte eta orokorrak bezala jotzen dituzte, hau da globalizatu egin dituzte.

Pelikula hauek mundu osoan zehar milaka umeei ikusten dituzte.

Mutil eta neskontzako mezuak oso desberdinak dira. Emakumeen kasuan, bizitza honetan arrakasta lortzeko edertasuna funtsezkoa da eta gizonak, ederrak izateaz gain ausartak eta trebeak izan behar dira. Familia ereduari dagokionez, guztiz tradizionala da, heterosexuala eta amak etxeko ardurak hartzen ditu.

Pertsonaia femeninoak Barbie gorputzak dituzte, lirainak, ederrak eta ile luzekoak dira. Gehienak ez dira aktiboak eta printzearen zain daude. Printzeak ausartak, ederrak eta azkarak dira. Horretaz gain, gatazka guztiak konpontzen dituzte.

Hau guztia dela eta, umeentzako pelikula bat aukeratzen dugunean ikusiko duguna lantzen ari garen hezkuntza ereduaren kontra joan daitekeelaren kontzientziaz izan behar gara eta horri zelaz egingo diogun aurre planifikatu.

Ipuinak kontatu

Ipuinak kontatuz ume eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzen ari gara. Adin bakoitzari egokitutako ipuinak aukeratu behar dira, beraien gustuak eta jakinminak kontuan hartuz. Adibidez txikiak magia sortzen eta irudimena bultzatzen dutenak edo nagusiek ipuin erotikoak oinarria izan daiteke sexualitateaz hitz egiteko.

Interesgune bat aukeratuta, ipuina horrekin lotu ahal da eta egunero pasadizo bat kontatu. Adibidez pertsonaiak aukeratuta aurreko egunean gertatu zitzaizena kontatu, edo ekintza bat burutu baino lehen pertsonaia horiekin lotu.

Gaubeletarako baliabide onak dira ipuinak, misterio modukoak edo mitologiako kondairak oso interesgarriak izan daitezke. Ipuin mitologikoari dagokionez kontuz ibili behar da mezuarekin, batzuetan oso sexistak izan daitezkeelako eta ondo legoke mezu horri buelta ematea.

Ingurune bat sortu behar da beti, honetarako musika, irudiak, ipuinarekin zerikusia duten objektuak erabili behar dira, kondairaren gertakizunak hurbil kokatzea ere ondo dago,

baina ipuinean sartzeko errazena iluntasuna da. Ipuina kontatzen den bitartean interakzioa ziurtatu behar da, entzuleei galderak eginez, eta bide batez imaginazioa garatuko dute adb. galdera tipikoak"... Eta ezetz jakin zer gertatu zen orduan?". Hauen bidez ezustekoak sartu behar dira, sustoak nondik ateratzen diren inork ez dakien soinua, argi efektuak, mozzoratutako antzezleak...

Azkenekoz ipuin kontalariak arreta erakartzea lortu behar du. Honetarako bide bat beraiei galdetzea da: "Nahi duzue ipuina entzun?", "Ba orduan belarriak erabili behar ditugu eta ez ahoa, ea, belarriak ondo garbitu". Beste era oso eraginkor bat erlajazio teknikak erabiltzea da, arnasketa bidez eta beraien irudimenean eta begiak itxita egoerak planteatuz eta beraiek imaginatzea nola garatzen diren hauek, oso hasiera ona izan liteke ipuin baterako.

Ipuinak begiraleek kontatu ahal dituzte edota umeak eta gazteak ere aukeratu eta kontatu.

Bestelako metodologiak

- **Altxorraren bila:** Froga desberdinak burutzen dituzten bitartean beraiek ipuinetako pertsonaiak bihurtzen dira eta istorioa osatzen joaten dira. Amaieran gertatu zaiena kontatu behar dute.
- **Bertsoak asmatu:** bertsoen simetrikarekin ipuinak kontatu behar dituzte.
- **Kantak asmatu:** ipuinak oinarria letrak asmatu eta musikatu.
- **Ipuinen tailerra:** nagusiagoak diren ume eta gazteekin ipuin klasikoan gaineko tailerrak antolatu ahal dira eta horien gainean hausnartu. Betiko ipuinak eman, Txanogorritxu, Edurnezuri, Bizargorri... irakurri eta hausnartu. •

Zabaldu ipuin bat eta zuk amesten duzun mundu berri bat agertuko zaizu. Etorkizuna idazteke dago, egin dezagun errealitatea.

Neska guztiek ez dutelako printzesak izan nahi, mutil guztiek ez dutelako gerlariak izan nahi.

bizikidetza

ipuin bidez

Xake Mate! bildumaren 3. liburuxka honekin ipuinetan agertzen diren mezu sexisten gaineko hausnarketa bultzatzea eta esku-hartze hezkidetzaila eskeintzea ditugu helburu.

1. liburuxka: **Xake Mate! Aisialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta.**

2. liburuxka: **Xake Mate! Aisialdian biolentziari aurre egiteko aholku sorta.**

